

MARY ANNING

fosilen dama



EGOITZ ETXEBESTE ADURIZ
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

IRUDIA: MANU ORTEGA

Lyme Regis-eko (Ingalaterra) itsaslabarrean zebiltzan Joseph eta Mary, 15 eta 12 urteko anai-arrebak, aitarekin egin ohi zuten bezala, fosilak bilatzen. Baina 1811ko arratsalde hartan, inoiz ez bezalako aurkikuntza egin zuen Josephhek: ia metro eta erdiko garezur bat! Krokodilo batena zirudien!

Handik hilabete batzuetara gainerako hezurdura aurkitu zuen Maryk. “Krokodilo” hura egunkarietan agertu zen, eta zientzialarien arreta piztu zuen. Everal Homek sei artikulu argitaratu zituen fosil haren inguruan, zer zen ezin asmatu: arrainmotaren bat, ornitorrinkoaren ahaideren bat, arrabioen eta muskerren arteko animalia bat... Azkenik, Charles Konig-ek *Ichthyosaurus* (arrain-musker) izena proposatu zuen, eta harekin gelditu zen.

Anningdarrak familia pobrea ziren. Joseph eta Maryren aita arotza zen, eta haren soldatak ez zuen askorako ematen garai zail haietan. Hala, diru apur bat gehixeago lortzeko, jaiegunetan fosil bila joaten zen, familiarekin batera askotan. Etxe-atarian mahai batean jartzen zituzten aurkitutako fosilak salgai. Herrian ohikoa zen turistei halako “bitxiak” saltzea: “suge-harriak” (amoniteak), “deabru-hatzak” (belemniteak), “krokodilo-hezurak”, eta abar.

1810ean aita gaixorik hil zenean, familia aurrezkerik gabe eta zorpetuta gelditu zen. Eta fosilen negoziotxoaren gelditzea zitzaien aukera bakarra.

Hurrengo urtean etorri zen iktiosuroaren aurkikuntza. Haren ondoren, iktiosuroaren fosil gehiago ere aurkitu zituzten. Hala ere, anningdarren egoera ekonomikoa oso txarra zen. Thomas Birch fosil-bildumagileak, familiaren egoerarekin errukituta, bere fosil-bilduma enkantean atera zuen 1820an, anningdarrentzat dirua ateratzeko.

Urte hartan bertan, beste itsas narrasti handi bat aurkitu zuen Maryk. William Conybearek *Plesiosaurus* (muskerren ger-

tukoa) izena jarri zion. Hura deskribatzen zuen artikuluan eskerrak ematen zizkion fosila Anningi erosi zion gizonari, baina ez zen ageri fosila aurkitu eta prestatu zuen emakumearen izenik.

Plesiosuroaren lepo luzeak eta 35 orno izateak susmo txarrak ere eragin zituen. Georges Cuvier anatomista frantziar ospetsuak, esaterako, Anningen marrazkiak aztertutakoan, Conybeareri galdetu zion ez ote zen hura iruzur bat izango. Baina hala ez zela argitutakoan, Cuvierrek berak aitortu zuen aurkikuntza haren balioa: “Zalantzarik gabe, hauxe da aurreko mundu bateko arrastoen artean aurkitu den munstroirik handiena. Musker baten burua zuen, krokodilo baten hortzak, koadrupedo arrunt baten gorputz eta buztana, kameleoi baten saihets-hezurak, bale baten hegatsak, eta izugarri luzea zuen lepoa, gorputzera jositako sugetzar bat balitz bezala”.




Garai hartatik aurrera, Maryren esku gelditu zen ordura arte amak eraman zuen negozioa (Joseph tapizgintzan hasi zen). Baina Maryk fosilak bilatu eta saldu baino askoz gehiago egin zuen. 1824an, Londresko epai-learen emazteak honela idatzi zuen Anning bisitatu ondoren: “Emakume gazte honengan harrigarria dena da bere kabuz lortu duela halako ezagutza zientifikoa, ezen edozein hezur aurkitu orduko bai baitaki zein triburi dagokion. Hezurak zementuzko euskarri batean atontzen ditu, marrazten ditu... Dударik gabe, Jainkoaren graziaren adibide zoragarria da neska gaixo ezjakin hau hain bedeinkatua izana, irakurtzearen eta ahaleginaren poderioz halako ezagutza mailara iristeko, doktoarekin eta gai horretan adituak diren gizon argiekin hitz egiteko eta idazteko gai izateko punturaino, ezen haiek guztiek aitortzen baitute erresuma honetako beste inork baino gehiago dakiela zientziaz”.

Anningen heziketa oso mugatua izan zen (irakurtzen eta idazten baino ez zuen ikasi elizako igandee-tako eskolan). Baina eskuratzeko zituen artikulu zientifiko guztiak irakurtzen zituen, baita uzten zizkietenak eskuz koptatu ere. Eta arrain, txibia eta abarren disezioak egiten zituen, aurkitutako fosilen anatomia hobeto ulertzeko.

Hala konturatu zen, adibidez, belemnite fosilen barruan aurkitu zituen tinta-poltsak txibia modernoenen antzekoak zirela, eta horri esker argitaratu zuen William Buckland-ek Jurasikoko belemniteek tinta erabiltzen zutela defentsarako, egungo zefalopodo batzuek bezala. Era berean, Anning ohartu zen “bezoar-harri” gisa ezagutzen zituzten fosil bitxi batzuk iktiosuroen sabelaldean agertzen zirela batzuetan, eta haiek hautsita, askotan, arrain-hezurak eta ezkatat aurkitzen zirela barruan. Anningek susmatu zuen fosil bitxi haiek iktiosuroen gortz fosilizatuak zirela, eta halaxe

argitaratu zuen Bucklandek, kropolito izena emanda. Bucklandek bai, aipatu zuen Anning, haren lana gorai patuz.

Pterodactylus deitu zioten narrasti hegalaria baten fosila ere aurkitu zuen, eta hainbat arrain espezie, bigarren plesiosauro bat, eta abar. Egunak joan eta egunak etorri joaten zen Anning Lyme Regis-eko itsaslabarrera. Neguan, batez ere; orduan izaten baitziren lur-jausi gehiago, eta orduan geratzen baitziren agerian fosilak. Fosil haiek itsasoak eraman baino lehen biltzea zen Anningen xedea. Eta lan hark bazuen arriskua, Anningek lagun bati kontatutako gertakari honetan ikus daitekeenez: “Barre egingo didazu agian, nire txakur fidelaren heriotzak lur jota utzi nauela esaten badizut. Labarra gainera erori zitzaion, eta nire begien aurrean hil zen, nire oinetatik gertu... patuaren eta bion arteko une bat izan zen...”.

 *Fosilak bilatu eta saldu baino askoz gehiago egin zuen Anningek.*

Anningek bisita asko izaten zituen, eta atsegin zuen hori, bereziki maila zientifiko handikoak zirenean. Gogoko zuen geologoekin eztabaidatzea, eta gida-lanak egin eta behar zuten laguntza guztia ematen zien. Zoritxarrez, gehienetan gutxi jasotzen zuen bueltan. Fosilak erosten zizkieten geologo eta bildumagile gehienek baino jakintza handiagoa izan arren Anningek, haiek argitaratzen zituzten beti aurkikuntzak, gehienetan Anning aipatu ere egin gabe. Anna Pinney lagunak honela idatzi zuen: “Esaten du erabili egiten dutela... zientzia-gizon horiek garuna xurgatzen diotela, eta etekin handia ateratzen dutela, lanak argitaratzen baitituzte, lan horien edukia harena izanik, eta hark batere etekinik atera gabe”.

1846an, Geological Society-ko ohorezko kide egin zuten, bizitza osoan zehar geologo askori eskainitako laguntza eskertzeko. Handik hilabete gutxira hil zen, 47 urterekin, bularreko minbiziak jota. ●